

2025eko martxoaren 31ko Herriko Kontseiluaren txostena

Hor zirenak: Anne Marie Darguy, Maité Oxarango, Karine Perez, Chantal Echevertz, Kattalin Duhalde, Virginie Sabaloue, Samuel Biscay, Sabine Auge, Koxe Barbier, Ramuntxo Oteiza, Patrick Barneche, Frédéric Hernandez, Hervé Parachou, Arño Gastambide

Ezin etorria jakinarazi zuena: Philippe Mongabure

1. 2024ko esplotazio-emaitzaren esleitzea

2024ko kontu administratiboak aurrekontu nagusian erakutsi du:

- funtzionamendu-soberakina:	335 162.80 €
- inbestimendu soberakina:	179 027.60 €
- Betetzekoak diren gaineratiko defizita:	326 635.00 €
- Hots, finantzamendu beharra:	147 607.40 €
- Emaizta funtzionamenduetara erakarri da (002):	187 555.40 €

2024ko kontu administratiboak ezohiko funtzionamendu soberakina erakutsi du aurrekontu gehigarrien kariatara egin operazioei lotua, baina ez da nahikoa betetzekoak diren gaineratikoak konpentsatzeko eta inbestimenduen segitzeko.

Aho batez onartua.

2. 2025eko tasen bozkatzea (proposamena beherago)

2025eko funtzionamendu aurrekontua murrizta gelditzen da eta aitzineko urteetakoaren arabera.

Gastuen emendatze bat baino gehiago jasan beharko ditu nahitaez, baita ere Estatuaren engaiamenduaren apaltze erregularra. FHNri dagozkion Estatuaren diru-zuzkidurak baita ere bizitegi zergaren zenbatekoaren kalte-ordaina ez dira batere goratu, kontrara, apaldu ere dira.

Atxikirik den taulan atzemanen dituzue zerga tasak eta FHNren erdiestea auzoko herrietan, eta, bistan da, Aiherraren kokapena.

2025eko aurrekontuaren egituratzen laguntzeko, zergen bilakaera beharrezkoa izanen da soberakina ukaiteko gisan, horrek gure inbestimendu-aurrekontuaren parte bat finantzatuko baitu.

Agintaldi denboran, hots, 6 urtean, % 1 baino gutiago da.

2024korako egin hautuen arabera, bigarren bizitegi-zergak % 5ez emendatuko dira.

Tasak	2024ko tasa	2025ean bozkatu tasak	Aurreikusi oinarriak 2025	Igurikatu emaitzak 2025
Funts Eraikiaren Zerga	23.69	24.16	1 021 000	246 674
Funts ez-eraikiaren zerga	29.87	30.46	77 700	23 667
Bigarren bizitegi-zerga	11.67	12.25	127 700	15 643
OROTARA				285 984

Aho batez onartua.

3. Aurrekontuaren bozkatzea

AURREKONTU NAGUSIA – Funtzionamenduaren ikuspegi orokorra

FUNTZIONAMENDU GASTUAK		FUNTZIONAMENDU IRABAZIAK	
	Proposamenak		Proposamenak
011 - Kargu orokorrak	172 500,00	70 – Zerbitzuen, jabegoaren eta salmenten etekinak	72 550,00
012 - Langile-karguak eta dagozkien gastuak:	180 225,00	73 - Orotariko zergak	510 624,00
		74 - Diru-zuzkidurak eta parte hartzeak	174 565,00
65 – Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak	180 250,00	75 – Kudeaketa arrunteko bestelako etekinak	50 400,00
66 - Finantza-karguak	14 500,00	002- Funtzionamendu soberakin erakarria	187 556,00
Gastu errealak orotara	547 475,00	Irabazi errealak orotara	995 695,00
Ordena gastuak orotara	448 220,00		
Funtzionamendu gastuak orotara	995 695,00	Funtzionamendu irabaziak orotara	995 695,00

Aurrekontu nagusia – Inbestimenduak

2025eko GASTUAK		2025eko IRABAZIAK	
2024ko inbestimendu defizita (001)	0	Funtzionamendu soberakina N-1 (1068)	326 635
Maileguen kapitala	60 000	2025eko funtzionamendu soberakina	417 119
LTEPren eramatearen ordaintzea	70 500	Balio erantsiaren gaineko zergaren konpentsazio funtsa	40 000
TE64	7 000	Amortizazioaren zor kitatzea	31 101
Bermea	2 000	Betetzekoak diren gaineratikoak	181 696
		Bermea	2 000
OROTARA	139 500	OROTARA	998 551

EGIN SOBERAKINA	859 051
-----------------	---------

Ekipamendu operazioak	2024ko Betetzekoak diren gaineratikoak	2025eko inbestimendu berriak	Diru-laguntzak:	Balantza
Beltzagitearen zaharberritzea	416 466	0	156 600	259 866
Bideak/Sareak	58 566	90 000	0	148 566
Suteen kontrako zaintza	1 299	42 000	0	43 299
Edukiontzien lurperatzea		5 000	0	5 000
Orotariko obrak / zubia	17 000	80 000	0	97 000
Orotariko erosketak	15 000	0	0	15 000
Elizako teilatuaren		7 500	0	7 500

Herriaren zeharkatzea		187 820	30 000	157 820
Lotizamenduan parte hartzea		110 000	0	110 000
Eskola publikoko aterpea		15 000	0	15 000
INBESTIMENDUAK OROTARA	508 331	537 320	186 600	859 051
			Finantza beharra	0

Aho batez onartua.

4. CDG64ren hautuzko kideztarako parte hartze hitzarmena - Babes sozial osagarria – Behar orduetako kutxa

Auzapezak oroitarazi du indarrean den araubidearen arabera lurraldeetako enplegatzaile publikoek eta haien erakundeek nahitaez parte hartze bat ordaindu behar dutela langileen behar orduetako kutxan (“ordainsariaren mantentzea”) 2025eko urtarrilaren 1az geroztik.

Pirinio Atlantikoetako Kudeaketa Zentroak kontsulta bat abiatu du Akitania Berriko kudeaketa zentroen eskualdeko kooperazioaren mailan mutualizatua, kolektibitateen eta langileen kideztza hautuzkoa duen parte hartze hitzarmen bat izenpetzeko “behar orduetako kutxa” ordaintzeko.

Kontsulta horren ondotik, Pirinio Atlantikoetako Kudeaketa Zentroak 2024ko uztailaren 11n, parte hartze hitzarmen bat izenpetu du “behar orduetako kutxarako”, MUTUELLE NATIONALE TERRITORIALE (MNT) mutualitatean, RELYENS artekariarekin, sei (6) urterako.

Proposatu da Pirinio Atlantikoetako Kudeaketa Zentroaren eta RELYENS artekaria duen MUTUELLE NATIONALE TERRITORIALEren (MNT) artean hitzartu parte hartze hitzarmenaren izenpetzea “behar orduetako kutxa” ordaintzeko.

Proposatu da elkargoaren parte hartzea 35 €-tan (gordin) finkatzea hilabeteko eta langileko.

Aho batez onartua.

5. Hazparneko Herriko Etxearekin obralaritza hitzarmena izenpetzea Xixtako zubia berritzeko

Aiherrako Herriko Etxea eta Hazparneko Herriko Etxea Xixtako zubiaren jabe dira. Zubi hau Aiherrako Haranburuko bidearen eta Hazparneko Lartabaleko bidearen artean da, Harana erreka gainetik zeharkatzen du.

Zubiaren egiturak patologia handiak baditu, adibidez, hormarte ttipiko haustura bat edo higadura bat C0 ostiko-zutabearen.

Zubi horretan obrak egin behar baitira, bi herriko etxeek **hitzarmen bat egin nahi izan dute bakoitzaren parte hartzea koordinatzeko.**

Obragin bakar gisa eta operazioa burura eramateko, Aiherrako Herriko Etxeak beharrezko ekintzak egiteko eginkizuna ukanen du indarrean diren arauak errespetatuz.

Herriko Kontseiluko kideek hitzarmeneko elementu guztiak irakurri dituzte, eta auzapezak hitzarmena izenpetzea proposatu du.

Aho batez onartua.

Gai orotarik

Gozategia ostatu/jatetxeko kudeatzaileraren hautatzea:

Hedatu zen kandidatura deialdiaren kariatara, 4 hautagaitza errezibitu ditugu eta dosieraz arduratzen den Herriko Etxetik kanpoko batzordeak 2 hautatu ditu.

Batzordeak egin elkarrizketen ondotik eta Herriko Kontseiluari egin txostenaren ondotik, kudeaketa Jérôme ALFAROri ematea erabaki da.

Ibilaldien Lekuko Planeko ibilbideak: ibilbide honi izen bat eman behar zaio eta ondoko Herriko Kontseiluan ibilbidea nondik iraganen den finkatu beharko da.

LTEP: Malegarie, lehentasunez erosteko eskubidea LTEPk Malégarie anderearen onarpen gutuna helarazi digu, eta dossier honen segipen juridikoa bermatuko du; erabaki batek erosketa hau formalizatuko du. Epaileak erosketaren prezioa 218 000 €-tan finkatu du (hastapenean 430 000 €-tan zen, 325 000 €etan galdegin zen eta erabaki zen).

Euskaraldia maiatzaren 15etik 25era: dinamika soziala da, euskararen erabilera handitzeko egunerokoan. Aiherra Arigunea izanen da eta Beltzuntze elkarteak maiatzaren 16an, ostiralean, **Gurashow** ikusgarria antolatuko du denen etxean.

Arberoako ortziralak: animazioa Aiherran uztailaren 25ean (proposatzekoa eta elkarteekin ikustekoa), eta usaian bezala, Abarrando agorrilaren 22an.

Izturitzen, apirilaren 4an, ostiralean, **merkatu handi bat** iraganen da Arberoako ekoizleekin. Ogia, barazkiak, ardi eta behi gasna, jogurtak, oilaskoa eta garagarnoak izanen dira salgai, eta ekoizle horietatik franko Aiherrakoak dira.

Hondakinen bilketa: Jakinarazten dizuegu apirilaren 7tik goiti, hondakin bilketa egunak aldatuko direla, bereziki etxe-hondakinena, bilketa ibilbideak berriz antolatuko baitira.

Aiherran, Lekuinen, Lekornen eta Makean etxe-hondakinen bilketa ez da gehiago astelehenetan egingen baina **asteazkenetan**.

Edukiontzia horien bilketa **ostiraletan** egingen da **Aiherran**, Lekuinen, Lekornen eta Makean.